

# txi kitto!



**Artaldeak  
Eibarko kaleak  
zeharkatuko ditu**



### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa  
Luz eta Ana Aizpurua.

### Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



- ✓ Bi lagun taberna batean zeuden, eta galdetzen dio batak besteari:
  - Zergatik ari haiz garagardoa lastoz edaten?
  - Berrero ez nuela koparik ezpainetara eramango agindu niolako aitari- erantzun zion besteak lasai asko.

- ✓ Ikastetxean sartu aurretik osasun-azterketa egitera joan zen mutikoa. Galdetu zion medikuak:
  - Izan duzu inoiz arazorik sudur edo belarriekin?
  - Bai, gizona, elastikoa kendu behar dudan bakoitzean.



Intza Apellaniz

- ✓ Zein da txerri baten akabua?  
Txerriari urdaiazpikoa oparitzea.
- ✓ Alabak aitari:
  - Aita, aita, tokadiskoaren orratza irentsi dut eta ez zait ezer gertatu, ez zait ezer gertatu, ez zait ezer gertatu, ez zait ezer gertatu...



Nahia Eguren



✓ Semeak aitari:

- Aita, jendeak zergatik deitzen dizu oilarra?
- Eta nik zer kristo dakikikirikit.



✓ Eibarko taberna batean gertatutakoa:

- Hi! Joxe! Ardo bat.
- Beltza ala zuria?
- Nahi duan bezala. Itsuarentzat duk.

**Jone Aldai**

✓ Lagun batek besteari:

- Aizu, zer ordu da?
- Hamabiak.
- Aiba, zein berandu!
- Lehenago galdetu hurrengoan!



- ✓ Zer esan zion pospoloak harraskagailuari?
- Zugaitik burua galtzen dut.

**Uxue Fidalgo**

✓ Martin xuhur zaharra alabarekin joan zen medikuarengana.

- Zer gertatzen da?
- Alabak 500 pezetako txanpona irentsi duela.
- Orain dela denbora asko?
- Pare bat hilabete.
- Baina nola ez duzu lehenago ekarri?
- Gaur arte ez dudalako diru horren beharrik izan!



**Janire Plaza**

✓ Nagusiak langileari:

- Hasieran hamar euroko soldata izango duzu eta geroxeago hogeikoa.
- Ba... geroxeago etorriko naiz orduan.




**Irati Dorrio**



# Denborapasak


## 7 desberdintasunak



Ea zer dagoen zenbaki hauen atzean:



Lorentzak bere ontzia aurkitu nahi du






## AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Naroa Moya** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Coliseoan antzerkia ikusteko 4 sarrera eraman ditu Naroak etxera. Zorionak!



## 7 desberdintasunak




**BIDALI ERANTZUNAK URRIAK 24 BAINO LEHEN.  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena .....

Adina .....Tel.....

# Denborapasak

## Osatu gurutzagrama (definizioak erantzunez)



### Horizontalak:


3. Ordua jakiteko tresna
4. Urko eta Everest holakoak dira.
5. Tximuei gehien gustatzen zaien fruta
7. Zaunka egiten duen animalia
8. Azenarioak gustatzen zaizkion animalia

### Bertikalak:

1. Urrutira deitzeko tresna.
2. Udaberrietan zelaietan pilo bat egoten dira.
6. Zeruaren kolorea.

## FRUTAK (aurkitu 8 fruten izenak)





**IZENA**

**MARKEL**

**ABIZENA**

**ALBERDI**

**JAIOTERRIA**

**EIBAR**

**JAIOTEGUNA**

**1991ko urriak 22**

- Igeriketa ez den beste kirol bat?

Atletismoa.

- Kolore bat? Urdina.

- Zenbaki bat? 8.

- Uda ala negua? Uda.

- Itsasoa ala igerilekua?

Igerilekua igeri egiteko eta itsasoa ondo pasatzeko.

- Miresten duzun kirolari bat?

Rafael Nadal.

- Umetako oroitzapen polit bat?

Udalekuetan pasatako egunak.

- Ametsetako oporrak nora?

Kultura ezberdina duen edonora.

- Igeri egiteko leku bat (igerilekua ez dena)? Itsasoa.

- Zer 3 gauza eramango zenituzke irla batera?

Sua, botikina, laban handi bat.

- Birziklatzen duzu? Bai.

- Euskara osasuntsu dago?

Alde handia dago Euskal Herriko herrien artean. Batzuetan benetan osasuntsu, beste askotan "hilda".

- Zer egin bultzatzeko?

Erabiltzen dugunok besteak erabiltzera bultzatzea.

- Zerk pozten zaitu?

Inguruko jendearen maitasunak.

- Zerk haserretu?

Jendearen harrokeriak.

- Abesti bat?

Gatiburen "Bizitzeko gogo".

- Umetan gehien gustatzen zitzaizun irakasgaia? Teknologia.

- Eta gutxien? Erlijioa.

- Nolakoa da zure egun perfektua?

Naturako toki atsegin batean maite dudak jendearekin egotea.

- Gogoan duzun egunik onena?

Galdera zaila. Zorionez, asko daude.

- Txistek kontatu ala entzun?

Entzun.

- Opariak egin ala jaso?

Biak dira atseginak, egia esan.

- Jatekorik gustukuena?

Txuleta handi bat patata eta piperrekin.

- Gutxien gustatzen zaizuna?

Alkatxofak.

**MARKEL  
ALBERDI**

Umetan hainbat kirol probatu eta gero, igeriketa aukeratu zuen, bertako giroak lagunduta. Bere ametsetako bat orain dela gutxi bete zaio; abuztuan Brasilgo olinpiadetan egon zen, 100 metroan lehiatzen. Oraindik ere kostatzen da egiten zaio han egon zela sinestea. Horrenbeste urtetako lanaren ondoren, "etxera" bueltatzeko ordua dela esan digu, etxekoekin eta lagunekin egoteko. Kirola egitea ondo dagoela baina ikasketak alde batera ez uzteko gomendioa txikitatik jaso du etxean, eta aurreko ingeniari-irakasleekin amaituko ditu.



# DEBABARRENEKO I. GAZTAREN ASTEA

Eibarren egun bereziak biziko ditugu ostiral honetan hasi eta domekara arte (urriak 14 eta 16). Izan ere Debabarrenako I. Gaztaren Astea ospatuko da gurean, eta gazta egiteko prozesua bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu.

## Urriaren 14an, ostirala:

Egitaraua aurkeztuko dute Portalean 19:30ean, eskualdeko sei gaztagileek.

## Urriaren 16an, domeka:

✓ **Goizeko 11:00etan** Mandiola baserriko **artaldeak Matsaria eta Untzaga arteko bidea** egingo du. Artaldeak Eibarko kaleak zeharkatuko ditu, bai, bai, ondo irakurri duzue, gure herriko kaleetan barrena sartuko dira ardiak, eta horretarako, zuen denen laguntza beharko dugu. **Artzain-lana egin eta esperientzia ahaztezina bizi nahi baduzue, gerturatu zaitetzte 11:00etan Matsariako errotondara eta artzain izateko aukera izango duzue.** Artaldea Matsariatik Untzaga plazaraino eramaten lagunduko duzue, eta gero, alderantziz, Untzagatik Matsariaraino.

Ordu berean, **11:00etan**, hainbat erakustaldi izango dira Untzagan:

- ✓ **Gazta egiteko** prozesua erakutsiko digu Elgoibarko Mausitxa baserriko Iñaki Ansolak.
- ✓ **Ogia nola egiten den** azalduko digu Eibarko Sosola baserriko Aizpeak.
- ✓ **Artilea lantzeko** prozesua eta **tintaketari** buruz hitz egingo digu Eibarko Miren Torrealdyk.

Artaldea gidatzen laguntzeaz gainera, bada egin dezakezuen besterik ere:

- ✓ Tintaketarako **tipula-azalak ekar ditzakezue** etxetik eta produktu naturalak erabiliz gure aiton-amonek jertseak edota galtzerdiak egiteko artilea nola tintatzen zuten ikasiko duzue.



- ✓ Bestetik, **artzaintzaren inguruko argazkiak edo marrazkiak** ere egin ditzakezue etxean edo eskolan bertan. Ondoren, azoka egingo den karpan jarriko dira ikusgai. Parte hartzen duten umeek gure eskualdea ezagutzeko mahai-joko bat jasoko dute opari.

Ez galdu aukera, eta har ezazue parte Debabarrenako I. Gaztaren Astea, ez zarete damutuko!





Irailaren 23an, **URKIZU** eskolako Lehen hezkuntza osoa Arratera joan ginen. Zoragarri pasatu genuen!



Ikasturtea hasi eta egun batzuetara **ITURBURU**ko 6. mailako ikasleek 3 eguneko irteera ederra izan dute: Arabako Zuhatza irlara joan dira. Hara heldu aurretik, Gasteiz hiriburuan pasatu zuten eguna. Aukera paregabea Eusko Legebiltzarra barrutik ezagutzeko: eraikuntza bera eta politikoei bertan egiten duten lana. Arratsaldean Zuhatzara abiatu eta bertako ur-kiroletan murgildu ziren. Esperientzia handia gure gaztetxoentzako. Primeran pasatu ondoren neka-neka eginda itzuli ziren Eibarrera.

**ARRATE ANDRA MARI IKASTETXE**etik: kaixo lagunok! Ikasturtea hasteaz batera martxan gaude jada: gela berria, irakasle berria, eta ekintza batzuk ere prest ditugu. Besteak beste, urriaren 10etik 11ra bitartean, LHko 3. eta 4. mailakoak Lurraskako barnetegira joan dira.

Beno, lagunok, beste gauza pila bat prestatzen ari gara eta hurrengoan kontatuko dizuegu!

**SAN ANDRE**seko ikasleak Orioko barnetegian egon dira 3 egunez eta beste ekintzen artean surf-ikastaroa egin dute Zarautzen. Oso ondo pasatu dute!



**ALDATZE**ko ikasleek ere gogotsu ekin diote ikasturteari eta zer hobeto oinak astindu eta mendira joatea baino! Arraten izan ziren eta egun zoragarria pasa zuten.



Oporretatik bueltan lagunak ikusteko irrikitan eta pilak guztiz beteta gaituzue **LA SALLE ISASI**n ere! Irailaren 21ean 1go eta 2. mailakoak San Pedrora joan ziren egun pasa. Arratetik oinez joan ziren eta 4 km-ko ibilbidea egin ondoren bertan bazkaldu eta arratsalde osoa jolasean eman zuten. Egund ezin hobea atera zitzaie!

Bestalde, 3. eta 4. mailakoak Donostiara joan ziren zinemaldira, Albert pelikula ikustera. Azkenik, 26an, 5. eta 6. mailakoak Arratera oinez igo ziren eta nahiz eta leher eginda bukatu ederto pasa zuten eguna.




# ONTZI FOSFORESZENTEAK

Gauean gure logelan jartzeko moduko ontzi fosforeszenteak nola egin ikasiko duzue orri honetan. Oso erraza da, eta logelari argi polita emango dio.

## MATERIALA

- ✓ Kristalezko ontziak (marmelada, saltsak... gordetzeko erabilitakoak)
- ✓ Pintzel fina eta mehea
- ✓ Margo fosforeszentea 2 tonu (pintura edo arte grafikoen dendetan saltzen dituzte)



## PAUSOAK

- 1.- Kristalezko ontziak garbitu eta ondo sikatu. Pintzela busti margoetako batekin eta hasi puntutxoak margotzen ontziaren barrualdetik. Utzi tartea beste koloreko puntuak ere egiteko.
- 2.- Egun argiz ez dugu antzemango, baina gaua iristen denean... etorriko zaigu magia! Gerturatu ontzia lanparara eta utzi 30 bat segundotan, ontzia argiztatu arte.
- 3.- Logelako argiak itzali eta sorpresa! Ontzia argiztatuta agertuko zaigu.




## CD APAINGARRIAK

Sarri gertatzen zaigu jada erabiltzen ez ditugun CDeekin zer egin ez dakigula. Hara hona ideia bat. Hartu erabiltzen ez duzun CD bat, eta alde metalikoa margo akriliko beltzarekin margotu eta utzi sikatzen. Arkatzarekin nahi duzuen marrazkia egin margoaren gainean. Gero, bihurkin edo destornilladorearekin harraskatu aurrez egindako marrazkia. Etxeko edozein txoko apaintzeko erabil dezakezue.







## LIMOIZKO KOPAK

Eta labea erabili gabe gainera! Postre gozo bezain freskoa egiteko aukera paregabea.

### OSAGIAK (6 LAGUNENTZAT):

- |                          |                                     |
|--------------------------|-------------------------------------|
| ✓ 700 ml esne            | maizena                             |
| ✓ 500 g esne kondentsatu | ✓ 120 g gaileta                     |
| ✓ 4 limoi handi          | ✓ 60 g gurin                        |
| ✓ Bi limoiren birrindura | ✓ 200 ml esne-gain                  |
| ✓ 4 gorringo             | ✓ 3 koilarakada glas-azukre         |
| ✓ 4 koilarakada          | ✓ Koilarakada bat bainilla-esentzia |



### PAUSOAK

- 1.- 100 ml esneri gehitu maizena. Erabili ez dugun esnea, esne kondentsatua eta gorringoak ondo nahastu eta limoi-zukua gehitu. Ontzi batean sartu eta su ertainean berotu. Lehenengo burbuilak agertzen direnean maizenarekin nahastu dugun esnea gehitu eta segi irabiatzen. Erretiratu eta hozten utzi.
- 2.- Handik 15 edo 20 minutura limoi-birrindura gehitu eta hozkailuan sartu. Bitartean gailetak txikituko ditugu, zati handirik utzi gabe. Gurina urtuko dugu su baxuan eta gailetei gehitu.
- 3.- Kopa hartu eta gaileta txikituen geruza bat jarri. Ondo sakatu. Gehitu nahastura eta berriz ere gaileta. Azkeneko geruza limoi-nahasturarena izango da. Utzi hozkailuan bizpahiru orduz. Kopak mahaira atera aurretik chantilly-krema prestatuko dugu. Nahastu esne-gaina azukrea eta bainillarekin eta krematsu dagoenean jarri koparen goikaldean.

## TXOKOLATE ETA PLATANOZKO OGI-XERRAK

Ti-ta!



Oraingoan behintzat ez duzue esango errezeta hau zaila denik! 5 minututan prestatzeko modukoa da. Baserriko ogia xerratan moztu eta txigortu, urre kolorea hartu eta kurruskari egon arte. Ogiaren gainean txokolate-krema igurtzi eta platano-zatitxoak itsatsi. Listo! Ti-ta batean egiteko modukoa,ezta?



## ✓ Urriaren 14tik 23ra

LIBURU eta DISKA AZOKA. Untzaga Plazan.



## ✓ Urriak 14 eta 16:

DEBABARRENEKO I. GAZTA JARDUNALDIAK.



Urriaren 14an aurkezpena 19:30ean Portalean  
Urriaren 16an:

10:00etan artaldea Matsariatik Untzagaraino.  
11:00-14:00etara: Gazta eta ogia egiteko tailerrak.  
Artilea haritu eta tintatzeko tailerrak. Ogi- eta gazta-dastaketa.

## ✓ Urriak 14, 15 eta 16:

XVIII. JARDUNALDIA  
MIKOLOGIKOAK

Perretxiko bilketa,  
aukeraketa, sailkapena,  
erakusketa eta dastaketa.



## ✓ Urriak 22:

IPUINEZ IPUIN. Zapatuko ipuina. Maialen Zubeldia.  
18:00etan umeen liburutegian. 3 urtetik gorakoentzat.



## ✓ Urriak 29:

GAUEKO ENTZIKLOPEDIA  
KOXKORRA, 17:00etan Coliseon. 5€

Pilarik gabeko jostailu- tresnekin interpretatutako abestiak.



## TXIKITTO!K IRUDI BERRIA DAUKA

Bai, bai, honez gero konturatuko zineten, gure aldizkariak logotipo edo irudi berria duela. Udako oporren aurretik antolatu genuen lehiaketara askok aurkeztu zenituzten lanak, baina bakarrak irabazi behar-eta, Anne Luengok aurkeztutako irudia aukeratu zuen epaimahaiak Txikitto!rako irudi berria

izateko. Hemendik aurrera, beraz, bidaiakide izango dugu puzzleko fitxa baten itxura duen irudia.



Anne Luengo




### GEZURREZKO MALKOAK (6 URTETIK AUERRERA)

Kokolikoti amak, aitik eta Kokonuta arrebak beti gogorazten zioten krokodiloak ausartak eta seguruak direla eta sekula ez dutela negarrik egiten. Berak, beraz, beti eusten zion barruan negarrari. Hala ere, egun batean, Kokolikotek jauzi oso handia eman behar izan zuen amildegi batera ez erortzeko, baina, hainbesteko beldurra zeukan, ezin izan baitzion negarrari eutsi.




### ZAZPI KALEETAKO ESKOLA (9 URTETIK AUERRERA)

XIX. mendearen amaieran bizi-bizi dago Bilbo eta, Atxuriko eskolarako bidean, kaleko harrabotsak Lur eta Ametsen jakin-mina areagotu egin du. Aspaldi honetan ohartuta daude amona Anderek arazoak dituela tabako-fabrikari; piper egin eta amonari laguntzera joatea erabakitzen dute. Langileriaren bizimodua eta garaiko bidegabekeriak gertutik ezagutuko dituzte bertan.



### HARRESI HANDIRANTZ (10 URTETIK AUERRERA)

Rama hamahiru urteko mutila da eta Indiako Ozeanoko Sri Lanka uhartean bizi da. Ramaren familia txiroa eta behartsua da, eta mutilari barre egiten diote eskolan bere ezjakintasunarengatik. Halabeharrik, ordea, pobreziatik eta ezjakintasunetik irteteko aukera eskainiko dio Ramari. Baina, horretarako, oztopo eta arrisku asko gainditu beharko ditu.



### TXINAKO LOREONTZI BAT (6 URTETIK AUERRERA)

Txinako loreontzi bat, oso antzinakoa, nekazari pobre baten txabolan bizi zen. Baina egun batean saldu egin behar izan zuten, eta merkatari batek erosi zuen. Hala ere, loreontzia batetik bestera ibili zen, harik eta...



### TXOKOLATEZKOA IZAN NAHI NUKE (8 URTETIK AUERRERA)

Mikeli arreba txiki bat ekarri behar diote gurasoek: Naia, Afrikatik datorren haurra, txokolatea bezain beltza. Mikel pozik dago batetik, baina bestetik ikusten du inork ez diola jaramonik egiten, denen arreba eta mimoak Naiarentzat direla-eta. Zer egingo du orduan Mikelek?



### ARMAIRU BARRUKO IKASTOLA (9 URTETIK AUERRERA)

Amona Anderek Donostiara itzultzea erabaki du Lur eta Ametsekin, Francoren diktaduraren ondorioz, urteak Saran igaro ondoren. Ihes egin aurretiko bizimodua berreskuratu nahi du. Andereñoa zen Donostian, haurrei eskola ematen zien. Donostiara itzultzean zenbait trikimailu asmatu beharko dute ikastola martxan jartzeko.





Historian saldu diren zapatarik handienak 74 neurrikoak izan ziren. Dendetan saltzen diren handienak 46koak izan ohi dira.



Kristo aurretik 400. Urtean gizakien bizi-itxaropena 37 urtekoa zen gizonen artean eta 27koa emakumeetan. Gaur egungoarekin alderatuta askoz gutxiago bizi ziren!



Matusalen Kaliforniako pinua da arbolarik zaharrenetakoa. 4.800 urte inguru ditu.



Txinan emaztegaien soinekoa gorria izaten da. Kolore zuria hiletetarako soilik erabiltzen dute.




Ba al dakizu zein den munduko sugerik handiena? Hegoamerikako anakonda. 10 metro luze izan ditzake, autobus baten pare.



Urtero 16 milioi ekaitz sortzen dira munduan.



Istana Nurul Iman jauregia da munduko handiena. 1.788 logela ditu. Bruneiko sultanak eraiki zuen.




Ba al dakizu Planeta Gorria zein den? Marte da. Hareazko lur gorrixka dauka, haizeak altxatu egiten du eta hodei arrosak sortzen dira.



Gau garbi batean 1.200 izar inguru ikus daitezke. Atera zaitez leihora, ia zenbat izar ikus ditzakezun.



Ozeano Artikoak 1.500 metroko sakonera dauka eta tenperatura, neguan, -34 gradura iritsi daiteke.



Hawaiko Kauai irla da munduko lekurik hezeena. Urtean 350 egunetan egiten du euria.



Kaktusik handiena saguaroa da. Estatu Batuetako hego-mendebaldean hazten da eta 20 metroko altuerara iritsi daiteke.



# DENAK BERDINAK GARA



**B**azen behin, Senegaleko mutil bat, Joseph izenekoa. Egun batean bere aitak pentsatu zuen lan hobetua izango zuela beste hiri batean eta esan zuen:

– Joseph, gauza bat esango dizut eta entzun nazazu. Beste hiri batera joango gara bizitzera.

– Baina, aita, hemen ondo nago diren lagunekin eta gainera eskola hartan ez dut lagunik izango!!

Hurrengo egunean aitak erabaki zuen bai edo bai hiri hartara joan behar zutela eta familiarekin hitz egin zuen:

– Maletak prestatu behar ditugu eta azkar, bihar arratsaldean hegazkina hartuko dugu-eta.

Eguna ailegatu zen eta Joseph-ek azkenaldiz protesta egin zuen:

– Nik hemen lagunak ditut eta han ziur asko ez ditudala izango-. Eta amak erantzun zion:

– Bai, izango dituzu seme, zu oso jatorra zara-eta!!!

Arratsaldean Joseph-ek bere lagunak agurtu zituen. Oso minduta zeuden eta Joseph-ek esan zion:

– Lasai, lagunok, etorriko naiz egunen batean berriro hona bizitzera, zuek zarete-eta nire lagunak onenak, oso jatorrak zarete-. Eta esan zuen bere arrebak:

– Goazen, bestela ez gara ailegatu.

Nafarroara iritsi ziren, eta esan zuen Joseph-ek:

– Gure etxea oso polita da, baina izan dezaket logela bat niretzako, aita?

– Ez, zure arrebarekin egingo duzu lo, baina logela oso handia da, eta mahai bat du etxekolanak egiteko.

Eskolako lehen eguna iritsi zen eta Joseph-ek lotsa handia zeukan. Ilaran ipini ziren eta neska bat hurbildu zitzaion bere laguna izateko:

– Nire laguna izatea nahi al duzu?-. eta Joseph-ek:

– Noski baietz, baina nola duzu izena?



– Nora, eta zu?

– Ni Joseph deitzen naiz.

Jolas-orduan mutil batzuk esan zioten Joseph-i:

– Zergatik etorri zara eskola honetara, zu barik ondo geunden.

Eta Norak esan zion:

– Joseph oso jatorra da, ez sartu berarekin, zuek berriak zinetenean gu ondo portatu ginen zuekin.

Eta Joseph-ek andereñori:

– Andereño, mutil horiek mehatxatu egin naute, nire itxurarengatik-. Eta andereñoak:

– Joseph, lasai egon, mutil horiek horrelakoak dira beti ikaskide berriekin, eurekin hitz egingo dut. Egin dizutena ez dago ondo, eurek ez dakite zu bihotz onetara zarela, gainera denak gara berdinak.

Nahiz eta txinatarra, afrikarra, indiarra izan, DENAK BERDINAK GARA.

Hurrengo egunean andereñoak berdina esan zion mutilei. Mutilek Joseph zirikatzen eta mehatxatzen jarraitzen zuten eta Joseph-ek egunero esaten zion aitari eta amari eskola hartatik joatea nahi zuela. Joseph-ek lagun bakarra zuen. Egun batean andereñoak lan bat bidali zuen, argazkiak ekartzeko nahi zuten herri batetik eta Joseph-ek Senegaleko argazkiak ekarri zituen. Mutil txatxu haiek konturatu ziren Joseph-ek zein gaizki pasatzen zuen Senegalen, bonbekin eta gauza horiekin. Handik aurrera mutilak hobeto portatu ziren Joseph-ekin eta gela guztia Joseph-en laguna egin zen.

Eta denak ondo bizi izan ziren!!!

**Nagore Ochoa eta Salma Fernandez**



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**



**zu margolari!**